Kontratuen erregistroa 2024ko abuztuan

KONTRATATUTAKO PERTSONAK

2024ko abuztuan 36.641 pertsona kontratatu dira, iazko abuztuan baino 1.153 gutxiago (% 3,1eko beherakada). Aurreko hilaren aldean 14.143 pertsona gutxiago dira kontratatutakoak (% 27,9ko beherakada).

• SEXUA

Abuztuan 18.781 gizon eta 17.860 emakume kontratatu dira. Aurreko urtearekin alderatuta, kontratazioak behera egin du bai gizonen zein emakumeen artean, zertxobait gutxiago gizonen artean; % -2,5 (-479 gizon), eta % 3,6 jaitsi da emakumeen artean (-674). Hileko zerrendan gizonen kontratazioak % 27,9 egin du behera (-7.264), eta emakumeen kontratazioak, berriz, % 27,8 egin du behera (-6.879).

• ADINA

Kontratatutako pertsonen batez besteko adina 34,92 urtekoa da, eta txikiagoa da gizonen artean (34,29) emakumeen artean (35,59) baino. Kontratatutako pertsona gazteenak Araban izan dira (34,21 urte), eta helduenak, berriz, Bizkaian (35,62).

Teknikari laguntzaileen taldea da gazteenak kontratatzen dituena, batez beste 31,12 urte baitituzte. Helduenak zuzendaritza-lanetarako kontratatutako pertsonak dira, 40 urtetik gorako batez bestekoarekin. Lanaldi partzialerako kontratatutako pertsonak lanaldi osorako kontratatutakoak baino gazteagoak dira (34,05 urte eta 35,41 urte, hurrenez hurren), eta alderik handiena gizonen kasuan dago (lanaldi osoko kontratuetan 31,58 eta lanaldi partzialekoetan 35,23 a batazbesteko adina). Kontratuaren iraupenaren arabera, kontratu mugagabeak dituzten pertsonen batez besteko adina aldi baterako kontratuak dituztenen batez bestekoa baino apur bat handiagoa da (35,05 vs 34,88).

• JATORRIA

2024ko abuztuan kontratatutako pertsonen % 21,9k atzerriko nazionalitatea du, iazko abuztuan baino puntu 0,6 gehiago. Kontratatutako atzerritar guztietatik, % 57,8k Latinoamerikako herrialderen bateko nazionalitatea dute, % 12,3k Afrika iparraldekoa, % 11,3k Saharaz hegoaldeko Afrikakoa, % 6,3k Europako Erkidegokoa ez den herrialderen batekoa azkenik, % 6k Asiakoa eta ,azkenik, % 5,2k Europako Erkidegoko herrialderen batekoa. Bertakoak (34,60 urte) gazteagoak dira atzerritarrak (36,08 urte) baino. Kontratazio-bolumen jakin bat duten atzerritarren artean, Afrika iparraldetik etorritakoak dira gazteenak 35,32 urterekin, eta Europako Erkidegokoa ez den herrialderen batetik etorritakoak, berriz, helduenak, 37,084 urterekin.

Azken hilabetean, 1.515 atzerritar gutxiago kontratatu dira (-%15,9); bertakoak % 30,6 gutxiago izan dira (-12.628). Murriztu egin da kontratazio-maila esanguratsua duten jatorri guztietako kontratatuen kopurua. Beherakada handiena, balio absolutuetan, Latinoamerikatik etorritako pertsonen taldean izan da, 641 pertsona gutxiagorekin eta % 12,1eko jaitsiera; balio erlatiboetan, Europako Erkidegotik kanpoko pertsonen kontratazioan izan da murrizketa handiena, % 27,8ko jaitsierarekin (-196 pertsona).

Urteko erlazioan, 5 pertsona atzerritar gutxiago kontratatu dira (% 0,1 gutxiago); bertako pertsonen kontratazioa % 3,9 murriztu da (-1.148 pertsona). Kontratazio esanguratsua duten

jatorri guztietan igo da kontratazioa, Latinoamerikako jatorria dutenetan izan ezik, 225 pertsona gehiago izan baitira (+%5,1). Balio absolutuetan zein erlatiboetan gehien jaitsi den jatorria Asiatik etorritako pertsonena izan da, 72 pertsona gutxiago (% 13 gutxiago).

• PRESTAKUNTZA-MAILA

Kontratatutako pertsonen % 45,1ek oinarrizko prestakuntza-maila du, gehienez ere derrigorrezko hezkuntza egin dute, % 23,2k batxilergoko ikasketak ditu, % 15,9k unibertsitatekoak eta % 15,5ek Lanbide heziketakoak.

Hileko erreferentzian, murriztu egin da ikasketa-profil guztietako pertsonen kontratazioa. Beherakada handiena izan dutenak, balio absolutuetan, derrigorrezko ikasketak dituzten pertsonak izan dira, 5.648 pertsona gutxiago (%-25,5); balio erlatiboetan, berriz, batxilergoko ikasketak dituzten pertsonen kontratazioak izan du jaitsierarik handiena, % 35,1 gutxiago (-4.599 pertsona).

Urteko erreferentzian behera egin du profil guztietan kontratatutako pertsonen kopuruak, unibertsitate-ikasketetakoetan izan ezik, 279 pertsona gehiago kontratatu baitira (+%5). Aldiz, beherakada handiena, bai balio absolutu zein erlatiboetan, derrigorrezko ikasketak dituzten pertsonen artean gertatu da, 949 pertsona gutxiagorekin eta % 5,4ko jaitsierarekin.

KONTRATUEN KOPURUAK

Abuztuan, EAEn 47.966 kontratu sinatu dira, horietatik 9.928 mugagabeak dira (guztietatik % 20,7). Ehuneko handia da, 2022. urtearen hasieran lan-erreforma onartu eta aplikatu aurreko serie historikoarekin alderatuta, baina 2022ko otsailetik izandako txikiena da. 0,3 puntu jaitsi da uztailarekin alderatuta, eta ia 2 puntu 2023ko abuztuarekin alderatuta. Kontratu mugagabea dutenen ehunekoa handiagoa da gizonen artean: % 22,9 eta emakumeen artean % 18,5 da.

Kontratazioak % 29,1 egin du behera, aurreko hilabetearekin alderatuta (19.724 kontratu gutxiago); aldi baterako kontratuetan murrizketa % 28,9koa izan da (-15.413 kontratu) eta azken hilekoetan % 30,3koa (-4.311 kontratu). Urteko erreferentzian, kontratuak % 1,2 jaitsi dira 2023ko abuztuarekin alderatuta, 566 kontratu gutxiago sinatu baitira. Hala ere, kontratuen bilakaera ezberdina izan da iraupenaren arabera: aldi baterako kontratuek gora egin dute (+440, +%1,2), eta kontratu mugagabeek, berriz, behera (-%9,2, 1.066 kontratu gutxiago).

• JARDUERA EKONOMIKOA

Joan den hilabetearekin alderatuta, behera egin du kontratazioak jarduera guztietan. Kontratazioan jaitsierarik handienak izan dituzten jarduerak ostalaritza (-3.641), merkataritza (-2.607), manufaktura-industria (-2.258) eta arte- eta aisialdia-jarduerak (-2.148) izan dira.

Aurreko urtearekin alderatuta, honako jarduera hauetan igo da gehien kontratazioa: informazioa eta komunikazioa (+656, % 40,8ko igoera), osasungintza (+563, +%8,2) eta hezkuntza (+291, +%25,1). Jaitsierarik handienak jarduera administratiboetan (-885, % 13,1 gutxiago), garraioan (-344, -% 9,2) eta manufaktura-industrian (-291, - % 4,5) izan dira.

Kontratuen erregistroa 2024ko abuztuan

• OKUPAZIOA

Hil arteko bilakaeran, kontratazioak behera egin du okupazio guztietan. Balio absolutuetan, zerbitzu-kualifikatuen profilean jaitsi da gehien kontratazioa, 5.929 kontratutan egin baitute behera, % 27,2ko ehuneko-jaitsierarekin; balio erlatiboetan, berriz, laguntza-teknikarien profilean gertatu da beherakada handiena, % 51,5eko murrizketarekin (-4.607 kontratu).

Joan den urteko abuztuaren aldean, teknikarien eta laguntzako profesionalen okupazioan izan du kontratazioak igoerarik handiena, bai balio erlatiboetan, bai absolutuetan, 493 kontratu gehiagorekin eta % 12,8ko gehikuntzarekin. Aldiz, jaitsierarik handiena, guztizko balioetan, kualifikatu gabeek izan dute, 911 kontratu gutxiagorekin (-%6,1); balio erlatiboetan, jaitsierarik handiena lehen sektoreko kualifikatuen kontratazioan gertatu da, % 33,2ko jaitsierarekin (-65 kontratu).

• KONTRATAZIO-MOTA

Hilabete honetan, berriz ere, mugagabeen tasa nabarmendu behar da; izan ere, 2022ra arte % 10etik behera egon ohi zen tasa hau, eta kasu honetan % 20,7ra iritsi da. % 20tik gorako tasa horiek ohikoak izaten ari dira 2022ko hasieran aplikatutako lan-erreformaren ondotik. Hala ere, azken hilabeteetan tasa horrek beheranzko joera hartu du.

2024ko abuztuan sinatutako kontratuen % 35,3 lanaldi partzialekoak dira (aurreko hilean baino ia puntu 1 gehiago), % 45,3 emakumeen kasuan eta % 26 gizonen kasuan. Kontratazio-mota horren arazo nagusia da gehienak ez direla borondatezkoak, eta agerian uzten dutela ezarritako kontratu-harremanaren kalitatea eskasa dela. Kontratu mugagabeen % 31,1 lanaldi partzialekoak dira.

Lanaldi partzialeko kontratazioaren ehuneko handiena duten jarduera ekonomikoak, kontratazio kopuru esanguratsua duten jardueren artean, honako hauek dira: ostalaritza (% 56,9), administrazio-jarduerak (% 53,7) eta merkataritza (%50,5). Okupazio-profilen arabera, lanaldi partzialeko kontratazioagatik gehien nabarmentzen dena zerbitzuetako langileena da (% 48,7), eta gutxiena, lehen sektoreko langile kualifikatuena (% 3,1).

• LURRALDE HISTORIKOAK

Lurralde historikoen arabera, kontratazioaren % 17,7 Araban sinatu da, % 50,1 Bizkaian eta gainerako % 32,1 Gipuzkoan.

Hil honetan, Araban 4.378 kontratu gutxiago sinatu dira, eta lurralde historiko horretan jaitsi da gehien hil arteko kontratazioa (-%34); Bizkaian 9.378 kontratu gutxiago sinatu dira (% 28,1ko murrizketa) eta Gipuzkoan 5.968 kontratu gutxiago (% 27,9ko beherakada).

Aurreko urtearekin alderatuta, Bizkaian bakarrik igo da kontratazioa: % 5,1 eta 1.169 kontratu gehiago sinatu dira. Araban, aldiz, % 9,9 egin du behera (937 kontratu gutxiago), eta Gipuzkoan 798 kontratu gutxiago sinatu dira (% 4,9ko murrizketa)

• BESTEREN ZERBITZUAN JARTZEKO KONTRATUAK (ABLE)

Abuztuan sinatutako kontratuen % 21 aldi baterako laneko enpresen bidez egin dira. ABLEen bidezko kontratazioa askoz ohikoagoa da gizonen artean emakumeen artean baino; lehenengoen artean, kontratuen % 28,2 enpresa mota horren bidez egin da, eta emakumeen artean, berriz, kontratazioen % 13,4 soilik izan dira ABLE bidez.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, ABLE baten bidez egindako kontratazioak % 35 egin du behera (4.138 kontratu gutxiago), eta, 2023ko abuztuarekin alderatuta, % 8,1 egin du behera (-675 kontratu).



Kontratuen erregistroa 2024ko abuztuan

		Abu-2024	Uzt-2024	Abu-2023	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Mota	Mugagabea	9.928	14.239	10.934	-4.311	-30,28	-1.006	-9,2
	Aldi baterakoa	38.038	53.451	37.598	-15.413	-28,84	440	1,2
	Guztira	47.966	67.690	48.532	-19.724	-29,14	-566	-1,2
	Mugagabeen %	20,7%	21,0%	22,5%	-0,34		-1,83	
Sexua	Gizona	24.196	34.460	24.568	-10.264	-29,79	-372	-1,5
	Emakumea	23.770	33.230	23.964	-9.460	-28,47	-194	-0,8
	Guztira	47.966	67.690	48.532	-19.724	-29,14	-566	-1,2
	Emakumeen %	49,6%	49,1%	49,4%	0,46		0,18	
Mugagabea	Gizona	5.530	7.645	5.974	-2.115	-27,67	-444	-7,4
	Emakumea	4.398	6.594	4.960	-2.196	-33,30	-562	-11,3
	Guztira	9.928	14.239	10.934	-4.311	-30,28	-1.006	-9,2
Aldi baterakoa	Gizona	18.666	26.815	18.594	-8.149	-30,39	72	0,4
	Emakumea	19.372	26.636	19.004	-7.264	-27,27	368	1,9
	Guztira	38.038	53.451	37.598	-15.413	-28,84	440	1,2
Guztira	Gizona	24.196	34.460	24.568	-10.264	-29,79	-372	-1,5
	Emakumea	23.770	33.230	23.964	-9.460	-28,47	-194	-0,8
	Guztira	47.966	67.690	48.532	-19.724	-29,14	-566	-1,2
Mugagabeen tasa	Gizona	22,9%	22,2%	24,3%	0,67		-1,46	
	Emakumea	18,5%	19,8%	20,7%	-1,34		-2,20	
	Guztira	20,7%	21,0%	22,5%	-0,34		-1,83	
Lanaldi partziala	Mugagabea	3.083	4.665	3.384	-1.582	-33,91	-301	-8,9
	Aldi baterakoa	13.987	19.929	13.460	-5.942	-29,82	527	3,9
	Beste batzuk	30.896	43.096	31.688	-12.200	-28,31	-792	-2,5
	Guztira	47.966	67.690	48.532	-19.724	-29,14	-566	-1,2
	LP tasa	35,6%	36,3%	34,7%	-0,75		0,88	
Lanaldi partziala	Gizona	6.297	9.057	6.221	-2.760	-30,47	76	1,2
	Emakumea	10.773	15.537	10.623	-4.764	-30,66	150	1,4
	Guztira	17.070	24.594	16.844	-7.524	-30,59	226	1,3
	Gizonen tasa	26,0%	26,3%	25,3%	-0,26		0,70	
	Emakumeen tasa	45,3%	46,8%	44,3%	-1,43		0,99	
	Tasa guztira	35,6%	36,3%	34,7%	-0,75		0,88	
Prestakuntzakoak	Prestakuntzakoak	47	387	36	-340	-87,86	11	30,6
	Beste batzuk	47.919	67.303	48.496	-19.384	-28,80	-577	-1,2
	Guztira	47.966	67.690	48.532	-19.724	-29,14	-566	-1,2
	Prestakuntzakoak (%)	0,1%	0,6%	0,1%	-0,47		0,02	
L. historikoa	Araba	8.509	12.887	9.446	-4.378	-33,97	-937	-9,9
	Bizkaia	24.053	33.431	22.884	-9.378	-28,05	1.169	5,1
	Gipuzkoa	15.404	21.372	16.202	-5.968	-27,92	-798	-4,9
	EAE	47.966	67.690	48.532	-19.724	-29,14	-566	-1,2
Gizonak	Lehen sektorea	287	608	432	-321	-52,80	-145	-33,6
	Erauzketa-industriak	6	9	6	-3	-33,33	0	0,0
	Manufaktura-industriak	4.564	6.393	4.774	-1.829	-28,61	-210	-4,4
	Energia	10	11	10	-1	-9,09	0	0,0
	Ura	581	596	575	-15	-2,52	6	1,0
	Eraikuntza	1.175	1.646	1.279	-471	-28,61	-104	-8,1
	Merkataritza	2.483	3.685	2.673	-1.202	-32,62	-190	-7,1
	Garraioa	2.775	4.164	2.847	-1.389	-33,36	-72	-2,5
	Ostalaritza	2.947	4.238	2.866	-1.291	-30,46	81	2,8
	Informazioa eta komunikazioa	1.227	2.260	898	-1.033	-45,71	329	36,6
	Finantzak eta aseguruak	128	159	133	-31	-19,50	-5	-3,8
	Higiezinen sektorea	11	25	20	-14	-56,00	-9	-45,0
	Zientifikoak eta teknikoak	514	1.020	556	-506	-49,61	-42	-7,6
	Administraziokoak	2.580	2.730	2.899	-150	-5,49	-319	-11,0
	Administrazio publikoa	272	323	428	-51	-15,79	-156	-36,4
	Hezkuntza	405	770	330	-365	-47,40	75	22,7
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	1.687	1.828	1.453	-141	-7,71	234	16,1

Kontratuen erregistroa 2024ko abuztuan

		Abu-2024	Uzt-2024	Abu-2023	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Arte- eta jolas-jarduerak	2.147	3.413	2.013	-1.266	-37,09	134	6,7
	Beste zerbitzu batzuk	315	487	290	-172	-35,32	25	8,6
	Etxeetako jarduerak	82	91	85	-9	-9,89	-3	-3,5
	Lurraldez kanpoko erakundeak	0	4	1	-4	-100,00	-1	-100,0
	Guztira	24.196	34.460	24.568	-10.264	-29,79	-372	-1,5
Emakumeak	Lehen sektorea	51	92	49	-41	-44,57	2	4,1
	Erauzketa-industriak	0	2	0	-2	-100,00	0	
	Manufaktura-industriak	1.559	1.988	1.640	-429	-21,58	-81	-4,9
	Energia	8	12	6	-4	-33,33	2	33,3
	Ura	34	55	51	-21	-38,18	-17	-33,3
	Eraikuntza	89	163	105	-74	-45,40	-16	-15,2
	Merkataritza	3.397	4.802	3.492	-1.405	-29,26	-95	-2,7
	Garraioa	620	1.019	892	-399	-39,16	-272	-30,5
	Ostalaritza	3.594	5.944	3.569	-2.350	-39,54	25	0,7
	Informazioa eta komunikazioa	1.036	1.733	709	-697	-40,22	327	46,1
	Finantzak eta aseguruak	155	224	181	-69	-30,80	-26	-14,4
	Higiezinen sektorea	33	41	68	-8	-19,51	-35	-51,5
	Zientifikoak eta teknikoak	506	971	500	-465	-47,89	6	1,2
	Administraziokoak	3.289	3.483	3.855	-194	-5,57	-566	-14,7
	Administrazio publikoa	221	480	292	-259	-53,96	-71	-24,3
	Hezkuntza	1.047	1.632	831	-585	-35,85	216	26,0
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	5.712	6.659	5.383	-947	-14,22	329	6,1
	Arte- eta jolas-jarduerak	1.080	1.962	1.054	-882	-44,95	26	2,5
	Beste zerbitzu batzuk	482	965	408	-483	-50,05	74	18,1
	Etxeetako jarduerak	855	994	879	-139	-13,98	-24	-2,7
	Lurraldez kanpoko erakundeak	2	9	0	-7	-77,78	2	
	Guztira	23.770	33.230	23.964	-9.460	-28,47	-194	-0,8
Guztira	Lehen sektorea	338	700	481	-362	-51,71	-143	-29,7
	Erauzketa-industriak	6	11	6	-5	-45,45	0	0,0
	Manufaktura-industriak	6.123	8.381	6.414	-2.258	-26,94	-291	-4,5
	Energia	18	23	16	-5	-21,74	2	12,5
	Ura	615	651	626	-36	-5,53	-11	-1,8
	Eraikuntza	1.264	1.809	1.384	-545	-30,13	-120	-8,7
	Merkataritza	5.880	8.487	6.165	-2.607	-30,72	-285	-4,6
	Garraioa	3.395	5.183	3.739	-1.788	-34,50	-344	-9,2
	Ostalaritza	6.541	10.182	6.435	-3.641	-35,76	106	1,6
	Informazioa eta komunikazioa	2.263	3.993	1.607	-1.730	-43,33	656	40,8
	Finantzak eta aseguruak	283	383	314	-100	-26,11	-31	-9,9
	Higiezinen sektorea	44	66	88	-22	-33,33	-44	-50,0
	Zientifikoak eta teknikoak	1.020	1.991	1.056	-971	-48,77	-36	-3,4
	Administraziokoak	5.869	6.213	6.754	-344	-5,54	-885	-13,1
	Administrazio publikoa	493	803	720	-310	-38,61	-227	-31,5
	Hezkuntza	1.452	2.402	1.161	-950	-39,55	291	25,1
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	7.399	8.487	6.836	-1.088	-12,82	563	8,2
	Arte- eta jolas-jarduerak	3.227	5.375	3.067	-2.148	-39,96	160	5,2
	Beste zerbitzu batzuk	797	1.452	698	-655	-45,11	99	14,2
	Etxeetako jarduerak	937	1.085	964	-148	-13,64	-27	-2,8
	Lurraldez kanpoko erakundeak	2	13	1	-11	-84,62	1	100,0
	Guztira	47.966	67.690	48.532	-19.724	-29,14	-566	-1,2
Gizonak	<>	1	0	0	1		1	
	Zuzendaritza	61	98	53	-37	-37,76	8	15,1
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	2.421	3.570	2.200	-1.149	-32,18	221	10,0
	Teknikariak eta laguntza emateko profesionalak	2.543	4.901	2.270	-2.358	-48,11	273	12,0
	Administrazioko langileak	1.014	1.374	1.288	-360	-26,20	-274	-21,3
	Zerbitzuetako kualifikatuak	5.802	7.791	5.524	-1.989	-25,53	278	5,0

Kontratuen erregistroa 2024ko abuztuan

		Abu-2024	Uzt-2024	Abu-2023	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Oinarrizko kualifikatuak	120	172	177	-52	-30,23	-57	-32,2
	Industriako kualifikatuak	2.138	3.169	2.259	-1.031	-32,53	-121	-5,4
	Operadoreak	2.793	4.173	2.841	-1.380	-33,07	-48	-1,7
	Kualifikatu gabeak	7.303	9.212	7.956	-1.909	-20,72	-653	-8,2
	Guztira	24.196	34.460	24.568	-10.264	-29,79	-372	-1,5
Emakumeak	<>	0	0	0	0,00		0,00	
	Zuzendaritza	39	74	44	-35	-47,30	-5	-11,4
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	3.149	4.254	3.005	-1.105	-25,98	144	4,8
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	1.803	4.052	1.583	-2.249	-55,50	220	13,9
	Administrazioko langileak	1.343	2.062	1.813	-719	-34,87	-470	-25,9
	Zerbitzuetako kualifikatuak	10.070	14.010	9.871	-3.940	-28,12	199	2,0
	Oinarrizko kualifikatuak	11	15	19	-4	-26,67	-8	-42,1
	Industriako kualifikatuak	269	333	271	-64	-19,22	-2	-0,7
	Operadoreak	428	678	442	-250	-36,87	-14	-3,2
	Kualifikatu gabeak	6.658	7.752	6.916	-1.094	-14,11	-258	-3,7
	Guztira	23.770	33.230	23.964	-9.460	-28,47	-194	-0,8
Guztira	<>	1	0	0	1		1	
	Zuzendaritza	100	172	97	-72	-41,86	3	3,1
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	5.570	7.824	5.205	-2.254	-28,81	365	7,0
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	4.346	8.953	3.853	-4.607	-51,46	493	12,8
	Administrazioko langileak	2.357	3.436	3.101	-1.079	-31,40	-744	-24,0
	Zerbitzuetako kualifikatuak	15.872	21.801	15.395	-5.929	-27,20	477	3,1
	Oinarrizko kualifikatuak	131	187	196	-56	-29,95	-65	-33,2
	Industriako kualifikatuak	2.407	3.502	2.530	-1.095	-31,27	-123	-4,9
	Operadoreak	3.221	4.851	3.283	-1.630	-33,60	-62	-1,9
	Kualifikatu gabeak	13.961	16.964	14.872	-3.003	-17,70	-911	-6,1
	Guztira	47.966	67.690	48.532	-19.724	-29,14	-566	-1,2
ABLE	Gizonak	5.301	8.055	5.727	-2.754	-34,19	-426	-7,4
	Emakumeak	2.401	3.785	2.650	-1.384	-36,57	-249	-9,4
	Guztira	7.702	11.840	8.377	-4.138	-34,95	-675	-8,1
Pertsona-kopurua	Gizonak	18.781	26.045	19.260	-7.264	-27,89	-479	-2,5
	Emakumeak	17.860	24.739	18.534	-6.879	-27,81	-674	-3,6
	Guztira	36.641	50.784	37.794	-14.143	-27,85	-1.153	-3,1
	Derrigorrezko hezkuntzako ikasketak	16.509	22.157	17.458	-5.648	-25,49	-949	-5,4
	Batxilergoa	8.496	13.095	8.806	-4.599	-35,12	-310	-3,5
	LHko ikasketak	5.681	8.058	5.821	-2.377	-29,50	-140	-2,4
	Unibertsitate-ikasketak	5.826	7.340	5.547	-1.514	-20,63	279	5,0
	Atzerritarra	8.042	9.557	8.047	-1.515	-15,85	-5	-0,1
	Bertakoa	28.599	41.227	29.747	-12.628	-30,63	-1.148	-3,9
	<>	17	26	21	-9	-34,62	-4	-19,0
	Aberrigabea	50	60	50	-10	-16,67	0	0,0
	Europako Erkidegoa	415	554	449	-139	-25,09	-34	-7,6
	Erkidegokoa ez den Europa	510	706	538	-196	-27,76	-28	-5,2
	Txina	83	110	97	-27	-24,55	-14	-14,4
	Japonia	7	12	6	-5	-41,67	1	16,7
	Asiako beste herrialde bat	393	477	452	-84	-17,61	-59	-13,1
	Saharaz hegoaldeko Afrika	911	1.071	935	-160	-14,94	-24	-2,6
	Afrikako iparraldea	986	1.229	1.053	-243	-19,77	-67	-6,4
	Ipar Amerika	16	16	16	0	0,00	0	0,0
	Erdialdeko eta Hego Amerika	4.651	5.292	4.426	-641	-12,11	225	5,1
	Ozeania	3	4	4	-1	-25,00	-1	-25,0
	Atzerritarrak guztira	8.042	9.557	8.047	-1.515	-15,85	-5	-0,1